



**Arartekoaren 2023R-1211-22 EBAZPENA, 2023ko martxoaren 28koa.** Honen bidez, Arartekoak Getxoko Udalarari gomendatu dio sustatu ditzala taberna jatetxe jarduera bat kontrolatzeko abiarazitako ingurumen-diziplinako jarduketak.

### Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa egin du Arartekoan Getxoko Udalak ez dielako erantzun (...) dagoen bere etxebizitzan Getxoko (...). zenbakian dagoen (...) taberna jatetxearen jarduera dela-eta pairatzen dituen zarata eta dardara-eragozpenengatik egin dituen salaketei.

Erreklamazioan adierazi duenez, gai horri lotutako hainbat salaketa aurkeztu ditu Getxoko Udalean.

- 2021eko abuztuaren 27an, lehenengo erreklamazioa aurkeztu zuen Getxoko Udalean, zeinaren bidez Udalaren esku-hartzea eskatu baitzuen bere etxebizitzarekin mugakide den ostalaritzako lokal horrek sorturiko zarata eta dardarak kontrolatze aldera. Idazkian azaldu zuenez, 2021eko ekainaz geroztik zarata eta dardara izugarriak jasaten dituzte etxebizitzan, eta horien ondorioz ezin dezakete atsedenek hartu ez logela bikoitzean ez adingabe baten logelan.

Aurkeztutako salaketan adierazi zen jatetxearen jarduera (gogaikarri eta osasungaitz gisa sailkatua) Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko 171/1985 Dekretuaren zehaztapenetara lotuta zegoela. Araudi horren arabera, makina guztietako ainguraketa dardaren aurkako elementuekin egin behar da, eta airearen erauzketa, berriz, estalkiaren gaineratik bi metrotara dagoen hodi baten bitartez egingo da. Era berean, salaketan azaldu zuen Zaraten eta Dardaren Udal Ordenantzaren 11. artikulua aplikatu behar zela eta, horren arabera, gauez egiten diren etengabeko zaratak gehienez ere 25 dB-koak izan behar direla.

Kexagileak adierazi zuen logela batean neurtutako zarata-maila normalean 54 dB inguruan mantentzen zela eta, bere ustez, (...) lokalaren sukaldeko ke-kanpian dauden haizagailuek sortzen zituzten zaratak.

Idazkian eskatu zuen Getxoko Udalak beharrezkoak ziren ikuskapen- eta kontrol-jarduketak egin zitzala salaketa hori Zaratei eta Dardarei buruzko Araudiaren arabera ebazteko.





- 2021eko abenduaren 2an eta 2022ko urtarrilaren 11n, kexagileak bere salaketak berretsi zituen Getxoko Udalean, bere familiaren behar bezalako atsedenean eragindako kalteengatik dagozkion erantzukizunak eskatzeko xedearekin.

Kexagileak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen etxebizitza-eskubidea eta egoitzaren bortxaezintasuna ahalbidetzen dituzten ingurumen-arauak behar bezala betetzen zirela bermatzeko. Halaber, Getxoko Udalak hizpide dugun gaiaren harira egindako salaketak erantzun zitzala eskatu zuen.

2. 2022ko ekainaren 7an, Arartekoak zenbait galdera helarazi zizkion Getxoko Udalari, aurkeztutako salaketei erantzuteko egin zuen esku-hartzearen inguruan eta Getxoko (...) dagoen (...) taberna jatetxearen jardueraren kasuan ingurumen-legezketasuna betetzen zen egiaztatzeko jarraituriko udal-ikuskaritzako neurrien inguruan.

2022ko abuztuaren 22an, Arartekoak Getxoko Udalari erantzun bat bidaltzeko eskatu zion.

3.- 2022ko abenduaren 15ean, Getxoko Udalak jakinarazpen bat bidali zuen Arartekora, jarduera horrek sortzen duen zarataren ondoriozko salaketei erantzuteko hirigintza-arlotik jarraituriko udal-jarduketan berri emanek. Udaltxostenean adierazten zenez, salatzaileak eta haren legezko ordezkariak espedientea eskuratu ahal izan zuten 2022ko azaroaren 29ko mezu elektronikoko bidez.

Bidalitako informazioan Udaltzaingoaren ikuskapen-aktak eta sonometria aipatzen ziren. Horietan jasota dagoenez, gainditu egin zen 25 dB(A)-ko balioa, Zaratari eta Bibrazioei buruzko Udal Ordenantzaren arabera baimentzen den gehienekoa.

2022ko otsailaren 8an, Getxoko Udalak hilabeteko epean beharrezkoak ziren egiaztapenak eta konponketak egin zitzala eta neurri zuzentzaileak bete zituela egiaztatzen zuen agiri bat aurkeztu zezala eskatu zion ostalaritza-establezimenduari.

2022ko irailaren 22an, Getxoko Udalak, kexagileari erantzun ez zitzaionez, errekerimendua egin zuen berriro, eta horren bidez, kexagileari ohartarazi zion, ez-betetzea gertatzen denean, Getxoko Udalak dagozkion legezko prebentzio-neurriak hartuko lituzkeela arestian aipaturiko zaratagatiko eragozpenak ekiditeko.





2022ko azaroaren 22an, Getxoko Udalak jardueraren titularrari 600 euroko hertsapen-isuna jartzea erabaki zuen, ez zituelako bete kutsadura akustikoaren arazoa konpontzeko beharrezkoak ziren neurri zuzentzaileak hartzeko egindako errekerimenduak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 115. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, ebazpenean interesdunari gogorarazi zitzaion, hilabeteko epean neurriak bete izanaren justifikazioa aurkezten ez bazuen, bigarren hertsapen-isun bat ezarriko zitzaiola eta beste kautela-neurri batzuk hartuko zirela, ondoko etxebizitzari zaratak eragindako eragozpenak saihesteko.

4. 2023ko urtarrilaren 9an, kexagileak geroko salaketa baten kopia bidali zuen Arartekora, taberna jatetxetik zetozen zarata- eta bibrazio-arazoen bere horretan jarraitzen zutelako. Idazki horretan kexa bat helarazi zuen Udaltzaingoaren ikuskapen-zerbitzuaren funtzionamenduagatik. Horregatik, udalbatzari eskatu zion jardueraren titularra behartu zezala udal-araudia betetzera, zarata gogaikarriari zegokionez, eta arazo hori sortzen zuten gailuak erabiltzea galarazteko kautelazko neurriak betetzera. Era berean, kexagileak ikerketa-espeditente bat hasteko eskatu zuen, Udaltzaingoaren kudeaketa eta zenbait udaltzainen jarduketara ebaluatzeko.

Kexa hori ikusita eta horren planteamendua eta Udalak emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak bidezkozat jo du honako gogoeta hauek egitea:

### Gogoetak

1. Saillaturiko jardueren ingurumen-ikuskaritza eta -kontrola egiteko ahalmenak ingurumen-organo eskudunei eskatzen die ingurumen-baimena dagoela ohartaraztera eta beren funtzionamenduaren harira bete beharreko neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatzerako bideratutako funtzio publikoa burutu dezatela.

Ingurumen-kontrola ez da baimen horretara mugatzen; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio alde aurretik finkatutako ingurumenaren kalitaterako helburuei dagokienez.

Behar diren lizentziak eskuratzeko betebeharrarekin batera, edo alde aurreko jakinarazpena aurkeztearekin batera, Udalak bere gain hartzen du sortzen duen zarataren eta dardaren kontrolari eta gainerako ingurumen-eskakizunei dagokienez





jarduera gogaikarria izan daitekeen bitartean neurri zuzentzaileak betetzen direla zaintzeko ardura.

2. Behin-behineko jardueraren funtzionamenduan edozein akats eginez gero (adibidez, ingurumen-araudian ezarritako zarata- edo dardara-mugak gehiegi izan daitezkeelako edo neurri zuzentzailearen bat bete ez delako), Udalak dagokion ingurumen-ikuskapen eta -kontrolerako prozedura ireki beharko du, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 98. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Ingurumen-legezkotasuna berrezartzeko prozedura 11/2021 Legearen 100. artikuluan jasota dago, eta modu autonomoan izapidetu daiteke, edo zehapen-prozedura administratibo baten esparruan txertatu daiteke.

Kasu horretan, espediente bat hasi beharko du titularrari eskatzeko, gehienez ere sei hilabeteko epean, jarduera horren funtzionamendu okerra zuzen dezala. Legezkotasuna berrezartzeko prozedura horren helburua da aldatutako egoerara lehengoratzea, eta horretarako, neurri zuzentzaileak ezar daitezke, ez-betetzeak edo hutsuneak gertatuz gero, edo, are gehiago, jarduera bertan behera uztea erabaki daiteke, 10/2021 Legearen 97. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Prozedurak jardueraren sustatzaileari eta gainerako interesdunei entzunaldi-izapidea egiteko baldintza ezartzen du, beharrezkotzat jotzen dituzten dokumentuak eta justifikazioak alegatu eta aurkezteko.

Ingurumen-legezkotasuna berrezartzeko neurriak 10/2021 Legearen 105. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako zehapen-araubidea aplikatzeari kalterik egin gabe hartu behar dira, zeina ingurumen-legerian tipifikatutako arau-hausteren bat egotearen ondorio baita.

3. Kasu honetan, Getxoko Udalak bere garaian ostalaritza-jarduerari emandako ingurumen-lizentziaren kopia erantsi du. Neurri zuzentzaileen barruan sartzen da makineria guztia dardaren aurkako elementuekin ainguratzea, dardarak eraikinaren egiturara, lokaletara eta inguruko etxebizitzetara transmititu ez daitezen. Keak teilatura ebakutzeko hodian kasuan, bizilagunei eragozpenik, zaratarik edo dardarik ez eragiteko eskatzen da.





Bestalde, Udaltzaingoaren ikuskapen- eta sonometria-aktek Zaratari eta Bibrazioei buruzko Udal Ordenantzak baimendutako gehieneko balioak gainditzen zituztela jasotzen zuten.

Horregatik, aurrekarietan aipatzen den bezala, Getxoko Udalak ostalaritza-establezimenduari eskatu dio egin beharreko egiaztapenak eta konponketak egin ditzala eta neurri zuzentzaileak betetzen direla ziurtatu dezala.

2022ko azaroaren 22an, Getxoko Udalak hertsapen-isun bat ezartzea erabaki zuen, ez zirelako bete kutsadura akustikoaren arazoa konpontzeko egindako eskakizunak. Ebazpen horretan, udal-administrazio horrek titularrari ohartarazi zion kautelazko beste neurri batzuk hartuko zituela aldameneko etxebizitzari zaratak eragindako eragozpenak saihesteko.

Horrela, aurkeztutako salaketei erantzunez, Getxoko Udalak (...) dagoen ostalaritza-establezimenduaren jardueraren ingurumena ikuskatzeko eta kontrolatzeko hainbat jarduketa egin ditu, haren funtzionamendua aplikatzekoa den ingurumen-araudiaren aurreikuspenekin bat etor dadila eskatzeko.

4. Horri kalterik egin gabe, ohartarazi behar da administrazioaren jardunak ofizioz aurrera egin behar duela, hasitako espedienteak amaitu arte, ingurumen-legezketasuna erabat berrezarrita, eta hura bultzatzeko ezin dela eskatu salatzailearen etengabeko esku-hartzea.

Salatzailearen zereginari dagokionez, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ingurumen-salatzaileari ematen dion estatusa aipatu behar da, indarrean dagoen 10/2021 Legearen 17. artikuluan ezarritako ekintza publikoa gauzatzen duenean. Artikulu horrek honako hau ezartzen du: *“Nornahik eskatu ahal izango die eskumena duten administrazioei ingurumen-legezketasuna berrezartzeko neurriak edo ingurumen-kalteengatik erantzukizuneko neurriak hartzea, eta lege honetan xedatutakoaren arabera arau-hausteak izan daitezkeen jardunak salatzea.”*

Kasu horretan, ingurumen-salatzaileak adierazten duenean alderdi interesdun izan nahi duela, administrazio-prozedurari buruzko araudiak aukera ematen dio administrazio-espedientearen izapidetze osoan zehar esku hartu eta parte hartu dezan, ingurumen arloko legezketasuna berrezartzeko neurriak eta ingurumen-kalteengatik erantzukizuna eskatzeko, eta, halaber, ingurumen-arloko legerian xedatutakoaren kontrako arau-hausterik egin ote den zehazteko.





5. Gogorarazi beharra dago jarduera sailkatuak kontrolatze eta ingurumen-arloko legeriari egokitze aldera, administrazio publikoek esku hartzeko duten betebeharra ez dela aukerakoa; izan ere, interes orokorra defendatzeko eta legeriatik eratortzen diren betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkion ahalmen publikoak gauzatzean datza.

Ingurumen-diziplinako ahala baliatzea eta zehatzeko ahala ez dira, inola ere, irizpidezko kontu bat. Administrazio-espeditentea irekitzeari buruzko erabakia araututako gaia da, eta ingurumen-diziplinako eta zehatzeko ahala egikartzeko eskumena duen organoari dagokio. Erabaki hori egoki arrazoitu eta justifikatu behar da, eta egokitasun-arrazoiak erabili beharrean, ordena publikoa eta legezkotasunaren defentsa bezalako argudioak aipatu behar dira.

Horrela, administrazioak prozedura batean egiaztatzen badu jarduera batek desegokiro funtzionatzen duela edo ez dituela neurri zuzentzaileak betetzen, ondorio ezinbestekoa izango da ingurumen-legezkotasuna berrezartzeko neurriak zein horretarako ezarritako zehapen-neurriak aplikatzea.

6. Azpimarratu beharra dago ingurumenerako kaltegarriak diren egoerak daudenean toki-erakundeek ezin dutela arazotik aldendu eta ehunka pertsona edo ondasuni kalteak eragin arte esperoan geratu, eta ezin dutela, ezta ere, espeditentea atzeratu lokaleko erantzuleek jarduera legeztatuko duten esperantzan.

Beharrezkoa da Udalak esku hartzea, arrisku-egoera amaitu dadin, eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea eta zuzeneko ardura dutenei neurri horiek hartzeko agintzea.

Bistakoa da lokal horiek gatazka sor dezaketela establezimendu-mota horren jardueraren harira ez bada udal esku-hartze egokirik egin, lokalen titularren interes partikularraren —beren dibertimenduzko jarduera gauzatzea— eta interes publiko orokorraren artean —establezimendu-mota horren inguruan bizi diren bizilagunen intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea, ezin baita haien lasaitasuna asaldatu lokal horiek sortutako eragozpenen ondorioz—.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak adierazi du etxebizitzetako immisio akustiko gogaikarriek Espainiako Konstituzioaren 15, 18.1 eta 18.2 artikulua urratu ditzaketela; hau da, bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 art.) eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2 art.).





Zehazki, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 119/2001 Epaia aipatu behar da; bertan, zera adierazi zen: *"una exposición prolongada a unos determinados niveles de ruido, que puedan objetivamente calificarse como evitables e insoportables, ha de merecer la protección dispensada al derecho fundamental a la intimidad personal y familiar, en el ámbito domiciliario, en la medida en que impidan o dificulten gravemente el libre desarrollo de la personalidad, siempre y cuando la lesión o menoscabo provenga de actos u omisiones de entes públicos a los que sea imputable la lesión producida"*.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak, 2004ko azaroaren 16ko epaian (Gaia: Moreno Gomez vs. Espainia), pertsonak beren etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatu daitezkeen duten eskubidea urratu zela jasotzen da —udal-administrazioak zaraten inguruko araudia behin eta berriro ez betetzea onartu zuen kasu batean—, eta, hala, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean jasotako 8. artikulua urratu zela.

Hori guztia dela eta, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### **Gomendioa:**

Getxoko Udalak Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako prozeduraren bidez dagozkion udal-eskumenak erabat baliatu ditzala, eta lehenbailehen abiaraz ditzala (...) taberna jatetxearen jarduera kontrolatzeko hasitako ingurumen- eta zehapen-diziplinako jarduketak, harik eta behin betiko ebazpena eman arte. Jarduketa horiek interesdunei jakinarazi beharko zaizkie.

